


zarautz
egin

OSTIRALA 17
1998ko UZTAILA



Zarautzen ere Egin, egingo dugu!

Zarautzek ez du bere hitza galduko borroka honetan

Eginek jasan duen eraso bortitz eta justifikaezin honen aurrean, Egin egunkarian sinesten dugun zarautzar guztiok gure ahotsak egunero kalean jarraitu behar duela erabaki dugu.

Euskadi información egunkariarekin batera doan jasoko duzue lau orrialde izango dituen *Zarautz Egin* berri hau. Lehen baino indar eta gogo gehiagorekin, aurrera egiteko prest gaude.

«Ez gaituzte isilduko»

Erasoari berehalako erantzuna eman zion Zarautzek

Egin egunkariaren aurkako erasoaren berri izan orduko, hainbat eta hainbat zarautzarrek erantzun zion asteazkenean adierazpen askatasunaren bahiketa lotsagarri honi. Goizean Hernaniko egoitzara hurbiltzeaz gain, asteazken arratsaldean batzarra egin zen Musika Plazan, ondoren herrian barrena giza-kate isila ibili zelarik gertatua salatuz.

Batzarraren ostean, Hitz Egin plataformak deituta egoera berriari aurre egiteko taldea osatu zen Zarautzen. Talde horrek asteazkenean bertan hartu zituen lehen erabakiak. Horien artean garrantzitsuena, zarautzarrantzat behintzat, gaurtik aurrera kalean dugun *Zarautz Egin* hau sortu eta egoera honek irauten duen bitartean egunero kaleratzea izan zen. Beste zenbait mobilizazio ere adostu ziren, ordea, asteazkenean.

Horien artean lehenengoa atzo goizean izan zen herriko hainbat kioskoren aurrean. Prentsa banatzen duten lekuen atarian, Egin itxi dutela eta, beraz, herri honen zati handi bat ahotsik gabe utzi dutela salatu zitzaion egunkariak erosi zituztenei. Halaber, atzo, gertaerak salatuz hainbat kartel eta pankarta jarri ziren herrian barrena.

Atzo Zarautza iritsi ziren **Euskadi información** guztiak saldu egin ziren. Aipagarria da, hala ere, hainbat dendarik ezin izan zuela egunkari hori banatu, ez zuelako jaso ahal izan. Zarautzko banatzaile bakarrak izan zuen egunkaria bere eskuetan eta bere dendetan bakarrik saldu zuen. Gainera, zenbait laguni dagoeneko agortu zela ere esan zitzaion oraindik aleak gelditzen zitzaizkienean. Udaletxearen aginduz, berriz, Egini egindako erasoak salatzen zuten pankartak kendu zituzten Musika Plazatik atzo eguerdian.


Zarautz Egin, egunero kalean

Bolondres talde bat arduratuko da eguneroko aleaz

Asteazkenean erabakitakoari jarraiki, bolondres talde batek egunero eskuartean duzun egunkari hau kaleratuko du. *Egin* egunkaria indarrez itxita, Euskal Herria bezala, Zarautz ere ahotsik gabe utzi nahi izan dute. Ez dute lortu, ordea. Une gogor hauetan aurrera egiteko prest gaude eta lehen herriko kronika bat baldin bagenuen hainbeste orrialderen artean, orain, zarautzarrok, lau orrialde izango ditugu *Zarautz Egin* honetan.

Eguneroko egitasmo hau gauzatu dadin, ordea, ezinbestekoa dugu guztion laguntza. Ezinbestekoa zaigu herriko talde eta erakunde guztiei deia luzatzea lehen *Egin*en herriko kronikarako bidaltzen zuten informazio guztia, lehengo bideetatik bidaltzen jarrai dezaten. Orain, gainera, herriko 391 postakutxa ere egunkari honen zerbitzura dugu edonork bere iritzi, gutun, marrazki edota testuak bidal ditzan.

Egin itxi digute. Bitartekoak kendu dizkigute. Baina lanerako indar eta gogo gehiagorekin inoiz baino jende gehiago topatu dugu bidean egunotan. Aurrera egingo dugu. Gaurtik aurrera, badugu informazio iturri berri bat. Zarautzarrok *Zarautz Egin* egingo dugu!



Agenda



◆Gaur:

☆Eginen inguruko gertaerak direla eta, arratsaldeko 19:30etan batzarra Musika Plazan.

◆Bihar:

☆Manifestazio nazionala: arratsaldeko 17:00etan Donostiako Antiguako tunelean.

☆Jarrai gazte erakundeak antolatutako bizikleta-martxa: **Kostaldea Bizirik** lemapean, goizeko 10.00etan irteera Zumaian. Argibide gehiago biharko *Zarautz Eginen*.

